

**LemoaHarrobi**  
**Kimu mailako**  
**V. Futbol**  
**Txapelketea**  
**apirilaren 7an**

10. orrialdea

**Zu bai Zu Talentu Lehiaketako**  
**kanporaketak hasiko dira**

Castingak pasau dabean 43 artista edo artista taldek euren talentua erakutsi ahal izango dabe Lasarte Aretoan, finalerako lehia. Kanporaketak, apirilaren 7, 14 eta 25ean, eta maiatzaren 5, 19 eta 26an izango dira, eta finala bagilaren 10ean. **13. orrialdea**



**Izaro Izquierdo**  
**Arratia BHI**  
**Institutukoak**  
**irabazi dau**  
**iruzkin lehiaketea**

12. orrialdea

TOKIKOM

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**293**

2018ko apirilaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Undurragako presako lanak amaitu dira daborduko



**2**011n proiektatua, Undurragako urtegiko obra nagusiak 2017an amaitu ziran. Hilabeteotan lehengoratzetan be amaitutzat emon dabek. Atzen urteotan Bizkaian egin dan obra hidraulikorik handiena izan da.

Lanon helburua ia kilometro eta erdiko "by-passa" egitea izan da Zadorraren sistematik datorren ura urtegiaren ez geldituko. Horretarako, ezkeraldeko mendi-magalaren azpitik, tunel handia zulatu behar izan da urtegiaren goiko aldetik presearen azpiraino. Bertan, Benta-Altako araztegiara doan ur-hornikuntzearen sistema orokorragaz lotzean da. **8. eta 9. orrialdeak**

## Bakearen Lore Gara Diman apirilaren 7an



Bakearen Lore Gararen igazko ekitaldia.

**B**akearen Lore Gara memoria historikoa berreskuratzeko ekitaldia egingo dabe Diman, hilaren 7an, 18:30ean, eskolako aretoan. Bertan, Arte Ederren Fakultadeko hiru artista gaztek euren artelan proposamenak aurkeztuko dabek. Aurretik, 17:15ean Dimako ermitetan kanpaiak joko dabek 1937ko bonbardeaketea gogoratuteko. **7. orrialdea.**

### BEDIA

## Yeuri auzunea urbanizetako dirua 2018ko kontuetan

EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzioagaz onartu ziran Bediako aurrekontuak martiaren 27an. Guztira 1.333.000 euroko aurrekontua da aurtengoa, igazkoa baino 25.000 euro gehiagokoa.

Inbersinoak hartuko dabe aurrekontuetako zatirik handiena. Eta horreen artean, diru gehien behar izango dauan proiektua Yeuri auzunearen urbanizazioaren lehenengo fasea izango da.

Igazko aurrekontuetan egin zan modifikazioagaz Ereñora ura eroateko proiektua be aurten egiteko asmoa agertu dabe udaletik.

Udalkutxak 10.000 euro itzuliiko deutzaz Bediari. **5. orrialdea**

### ARRATIA

## Lan baldintza hobek eskatuteko mobilizau ziran irakasleak

Martiaren 14 eta 15ean, hezkuntza publikoko irakasleak greba egin eben. Haurreskolen kasuan, gehiengo sindikala ez zan bat etorri. Izan be, LABek greba deialdia eten egin eban akordioa lortuta, baina ELAK eta Steilasek eutsi eutsien deialdiari.

Arratia eta Zeberiko eskola publiko eta institutuetan, irakasleen %78k egin eben greba lehenengo egunean eta %90ek bigarrean. Areatza, Artea, Dima, Zeanuri eta Zeberiko Haurreskoletan ez eben grebarik egin. **7. orrialdea**



### IGORRE

## Maiatzaren 6ko herri konsultan egingo dabek itauna ebatzi dabe

"Euskal estatu bateko herritarra izan gure dozu?" izango da igorrezarrak maiatzaren 6ko herri konsultan erantzungo dabek itauna. Hau adostuteko batzarra egin eben Igorren Ebatzi alkarteak deituta eta hementik aurrerako ekitaldien barri emon eban alkarteak. *Elkarrekin together* dokumentala proiektuak dabe apirilaren 12an eta Igorren zinegotzi izandakoak babes ekitaldia egingo dabe apirilaren 22an. **5. orrialdea**

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



**www.begitu.org**

**Gugaz harremanetan ipinteko**  
**94 631 73 14 eta 649 979 112**  
**begitu@topagunea.com**



## ARRATIA KOLOREETAN



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 3tik 8ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 9tik 15era**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 16tik 22ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengo

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Raket Aldekoa Diez, Maite Arrizabalaga eta Alvaro Rabelli.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketa:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



## ZEURE BERBEA

### Beste alde batera begira, noz arte?

Jakina da gizarteko eremu guztiak egitura heteropatriarkalaren gainean eregiten dirala. Jazarpen egoerak be eremu guztietan bizi doguz. Biolentzia matxistek beste indarkerien laguntzeagaz jarduten dau espazio pribadu zein publikoetan. Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikak Granadako espetxean bizi dabena, esate baterako, horreetariko bat da. 2017ko maiatzean kartzelako zuzendariak andra preso guztiak danen espazioak garbituteko agindua ezarri eutseen, gizonetakoak betebeharrak horreetatik libre itxita, eginbehar horreek ordainduta daukiez eta.

Jarkera matxista horren aurrean aginduari muzin egin eta zapalketa hori salatutea ebatzi eben Agurtzane eta Ainhoa. Matxismoaren aurrean jarkera irmoa erakustek, ostera, ondorio latzak ekarri eutsezan eta isolamentua ezarri: besteak beste, hilabete luze eta luzeetan patiora urteteko egunean lau ordu baino ez eukitea, ziegan aire beroa urritu eta jasangaitza dan hotzagaz bizirautea, irakurketarako beharrezkoa dan argia ukatuta izatea...

Muturreko egoera honen aurrean Arratiako hainbat andratalde, talde feminista eta eragilek

mozinoa aurkeztu dogu udaletan, kartzelako zuzendariak gutuna bialtzeko konpromisoa eskatuz, euskal preso politiko honeenganako alkartasuna adierazo eta egoera onartezin honen amaierara exijiduteko.

Mozinoa aurrera urten da aurkeztu dan herrietan, baina handa be, harridura eta samina adierazo gura doguz EAJ-k agertu dauan jarkerea dala eta. Izan be, Arratiako udal batzuetan kontrako botoa emon dabe alderdi politiko honetako hautetsiak.

Ordezkaritza politikoak giza eskubideen aldeko burruka sutsua, justizia eta bardintasuna euki behar leukez lanerako ardatz. Ez da hau, antza danez, askoren ardurera politikagintzan, androk zapalduak garanean beste alde batera begiratu eta ardurabakokeriaz jokatu dabe eta.

Hausnarketarako deia luzatu dogu, martiaren 8rako izaten diran aldarrikapenak eguneroko politikagintzan emon beharreko pausu errealek bihurtu daitezkan behingoz.

Besarkadarik maitekorrena Granadako espetxean preso dagozan andra burrukalariak.

**DIMAKO ANDRAIZAIA,  
HARRIKETARRAK GAZTE  
ASANBLADEA ETA ARTEAKO  
ANDRA TALDEA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berriro eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Kopau



Janari nagusien artean egiten dan janaldi arina da, eguerdi aldera berbarako (kopáue, agoskatuta). Hamaitetako, hamarretako, mokadu, luntx be erabilten dira. Esate baterako: "Datorren domekan, meza nagusiaren ostean, familiartekoak kopautxoak egingo dogu txokoa".

## ERETXIA

### Seme-alaben alergien aurrean ez dago prestakuntza baino ezer hoberik

Udabarria gainean daukagu, zugatzak loretan, pinuen polinizazioa martxan, eta gutariko asko nekuko katarro eta eztulak gainetik kendu ezinik. Egia esan, alergiak edo asma agerraldiak ez dagoz halabeharrez urtaro zehatz batez lotuta. Baina nork ez dau bizi izan, udabarri eta udagoienaren hasierako arrasti lasai baten, momentu batetik bestera, konturatu be egin barik, arpegiko azala gorrituta ikusteak, han edo hemen azkurea izatea edota arnasa hartu ezinik sentidutea?

Alergia edo multi-alergien gainera ikerketen arabera, alergia-probetara aurkeztu diran %80tik ia-ia %76a positiboa izaten da. Bestela esanda, gaxak eragindako sintomatologia, benetako gaixotasunaren adierazgarri da. Horrenbestez, helduok, ondoezak jota gagozanean, badakigu gure mina edo arazoaren ezaugarriak deskribiduten, nora joan behar dogun edo zein dan jarraitu beharreko protokoloa. Umeen kasuan, barriz, zelan jokatu dogu gurasook?

Umeak eskolara joan aurretik babespean daukaguz. Etxekook badakigu zerk egiten deutsan kalte umeari, zer ezin dauan ikutu, jan edo arnastu. Eskolara doazenean, ordea, etxekook kontrola galtzean dogu eta beste profesional batzuen eskuetan ixten dogu umearen ardura.

Irakasle eta ama nizan aldetik, badakit guraso horreek ez dabizala brometan, ez dabela egoera putzituden, arazoa larria izan daitekela eta ondoezak edo minak jota dagoan umeari ahalik eta arienen erantzun behar jakola, bere segurtasun fisikoa eta ondoizate



**AMAIA TREJO ALDEKOA**  
Irakaslea

umearen gizarte garapenerako, zein bilakaera akademikorako. Adituak esan bezala bi dira gure kezka iturriak. Bata, alergiak dituen umeak *bullyinga* sufriduteko arrisku handiagoa dabela, jakinik ume alergikoen %30ak erasoak salatu dituala. Bestea, elikagai bat jan ezin edo ekintza-ospakizun baten parte hartu ezin dabenean, estresa eta ansiedadea biziten dabe, isolameta eta bakardadeara zigortuz.

Irakasle nizan aldetik, barriz, badakit niri jagokodala gelako kide guztien desbardintasunak aintzat hartzea, baloretea, aniztasunari lekua egitea, eta ume guzti-guztien osasunaz eta alderdi akademikoez arduratzea.

Ikastetxeak, testuinguru segurua dan heinean, ume guztien garapen globala bilatzen dau, bardin da zeintzuk diran umearen ezaugarriak. Eskolak proposatzen dauan jarduerak edozein dala, hausnarketa labur baten laguntzeagaz eta egokitzapen txiki batzuek, ume guztiak parte hartzean dabela ziurtatu geinke, baita alergiak, multi-alergiak edo beste ezaugarri batzuk dituenak be.

Horregaitik, ama eta irakaslea nizan aldetik, eskertu gura deutsat Arratiako Mankomunitateari eta B06 Berritzeguneari, aurten Igorren eta Zeanurin Arratiako hezkuntza-komunitate osoarentzat zabalik egin diran prestakuntza saioak antolatzea. Bertan, ATX alkarteko adituak azaldu euskuen xehetasun handiz zeintzuk diran hasierako sintomak, gertatzen danean zer egin eta zer ez, zelan ekidin arrisku egoerak eta irakasleonek geuregeurea dan egiteko: zelan jokatu arrisku egoeretan ikasleen aniztasuna aberastasun bihurtzeko eta ume guztien parte-hartzea eta integrazioa bermatzeko.

Ezjakintasuna bildur eta erresistentzia antzu askoren iturria da gizartean zein gelan. Formazioa eta informazioa, aldiz, ziurtasuna eta lasaitasunarena etxeko, lagunarte eta irakasleontzat. Badago prestakuntza baino botika hoberik inklusiorako?

emozionala bermatu gura badozuz.

Ama nizan aldetik, ezagun dot aitatutako ondoizate fisikoa eta emozionala ezinbestekoak dirala

## LUMATUTEN



## IDOIA LEGARRETA

## Demoninoaren alabak historia egiten

**P**aradisuko sagarra jan eban Evak gara, eta gure zikoizkeriaren erruz Adan bertatik kanporatua izan zan. Labirintoko Medusa zaindariak gara, gizonetzkoak gorrotatu eta begiratzeaz bat harri bilakatzen doguzanak. Demoninoak gola sartu euskun feminista erradikalak gara, genero araberako gizarte antolamentua kuestionetan dogulako. Gizadiaren kaosaren eragileak gara, sufri-mentu guztiaren sortzaileak, gizonak zoratzearen errudunak, sexu ahula, irrazionalak, emozionalak. Zenbat negatibidade, erru, gorroto eta ikus-ezintasun heredau eta jasaten doguzan, oraindino orain.

Eta, ha-ta guzti be, mundua sostengatzeko, elikatzeke eta zaintzeke ezinbestekoak gara, nahitaezko egiten gaitue. Sinistu arazoten deuskue izaki inperfektu lez ama izatea, bes-

teen zaintzaile izatea dala gure birtudetik eta betebeharririk gorenena. Munillari barruak gehien berotzen deutsana hori dalako: andrazkook ezbaian ipintea bidebakoia dan gizarte antolaketa hau eta ez jagokun papela hartzea. Misoginia pil-pilean.

Horregaitik, hunkigarria izan zan atzen martiaren 8an hainbeste andra alkartu izana Igorreko bidekurutzean, hain desbardinak eta hain gertu alkarrengandik: andra gazteak, zaharrak, euskaldunak, kanpotik etorritakoak bertara biziten, fabriketako langileak, komertzioetakoak, ikasleak, langabeak, etxeandak. Danak helburu berberagaz. Ozen aldarrikatzeko planto egiten deutsagu jente-arte bidebako honeri: bes-telako jente-arte mota bat eregi gura dogulako, non andrak ez garan izango bigarren mailako herritarrik; bizitzaren sostengarritasunerako ezinbestekoak diran lanak eta baloreak gure modelo sozialaren erdigunean jarri behar doguzalako, eta zaintza lanak guztionak diralako; prekariedadetik eta bazterketarik bako gizarte bat gura dogulako miloeka andra bildu ginan munduan, Euskal Herrian eta Arratian. Aurtengo martiaren 8a historikoa izan da, gizarte patriarkala eraldatzeko inoz baino gehiago garalako.

## ZERTZEAN



## EÑAUT INTXAURRAGA

Mundu zahar honen ertz honetatik zera eskatuko geunke norantza joan geuk ebaztea gureko geunkela geupe eskubide hau gauzatu guran hor gabiz urterik urte gure herri zahar-zahar honen orainak, geroak gure esku behar leuke.

Giza katea egin gendun behin gogo onez, borondatez gero herriak josi genduzan oihal kateen bitartez kate zaleak garen ala ez etorten bajakuz galdez geuk hautatzen doguzanak bai ganetik jarrienak ez.

Eta bai eta bai Gure Eskuri bai ta bai.

Eta bai eta bai geu gara ebazteko gai.

## Gaia jarrita: "Gure Esku Dago"

Mundu zahar honen ertz honetatik zera eskatuko geunke...

Herritar danok zek batu gaitu zein da honen sekretua? Ba alderdien lehiatik kanpo dagoela eratu behetik gorako indar bat da hau herritarrok hauspotua ta hau ez dago ja gelditzerik martxan dago olatua.

Mundu zahar honen ertz honetatik zera eskatuko geunke...

Eta bai eta bai geu gara ebazteko gai.

Eta bai eta bai Gure Eskuri bai ta bai.

Eta bai eta bai Gure Eskuri beti bai.

## BEGI TXINDORRA

**M**atrioska kopin errusiarren antzera, arrautza oso bat oskol eta guzti dago beste arrautza baten barruan. Arteako Elexa-beitin, Egoitz Sautua Ateagaren oilo batek errun ebazan matrioska arrautza honeek.

Barriro be, bizitzak bere dibersidadea erakutsi deusku ezustean. Gauzak modu bakar baten dirala uste dogu askotan, baina izateko modu asko dagoz. Seguruenik, eskolan umeak ikasiko dabe arrautzak normalean gorringo bat izan arren, inoz gorringo bi be izaten dituela. Baina arrautza bat oskol eta guzti beste baten barruan... Pentsetan dot hori ezustekoa izango zala arrautza kontuetan adituenentzat be.

Arteako oilo anonimoak arrautzakaz batera, irakaspen bat be itxi deusku: bizitza espero dogun baino askoz oparagoa dala. Eta ha-maika ikusteko jaio garala.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarrongoa  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
kalegori.zentrua@agoa.com  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## IGORRE

# Igorretarrak ebatzi dabe maiazaren 6rako itauna



Igorren Ebatzi alkarteko kideak.

### Erredakzioa

Gure Esku Dagoko Igorren Ebatzi alkarteak deitutako batzarrean igorretarrak herri kontsultarako itauna ebatzi eben. Maiazaren 6ko kontsultan, "Euskal estatu bateko herritarra izan gure dozu?" galderari erantzungo deusie Igorren.

Horrezaz gainera, Igorren Ebatzikoak ordutik aurrerako lana eta kanpainak azaldu ebezan. Kanpainai jagokienean, M6ko kartelak balkoietan ipintekoa abiatuko dabe laster, eta herri kontsultari babesa

emoteko herriko talde, alkarte eta kuadrillak egindako bideo grabazioak be hasi dira zabalduen.

### Ekitaldiak

Eitaldiai jagokienean, barriz, lehenengoa, *Elkarrekin together* dokumentalaren proiektzioa izango da. Apirilaren 12an proiektuak dabe filma arrastiko 19:30ean, Kultur Etxean.

Hurrengo ekitaldia, Igorreko Udalean egondako zinegotzi eta alkateen babes ekitaldia izango da, apirilaren 22an, 12:30ean.

## ARTEA

# Konzentrazioa egin eben udaletxe aurrean lan istripua salatuteko

### Erredakzioa

"Prekariatetik ez! Lan duina, bizitza duina" lemapean, konzentrazioa deitu eban Arteako Udalak martiaren 23an, hiru egun lehenago mekanizazio enpresa baten gertatutako lan istripua salatu eta hildako beharginaren familia, lagun eta lan-kideai solidaritatea adierazoteko. 30 lagun inguru batu ziran bertan.

Industria de Mecanizado Germany-n (IMG) gertatu zan istripua. Bertan 48 urteko behargin bat hil zan, kolpe handi bat hartuta. Behargina Gurutzetako ospitalera eroan

eben arren, ezin izan eben bere bizitza salbau.

Hurrengo egunean IMGko beharginak konzentrazioa egin eben enpresearen aurrean, baita 24 orduko lan-ixtea be euren alkatasuna adierazoteko.

Sindikatuak istripuaren zergaitiak jakiteko ikerketea eskatu dabe.

### Euskal Herrian urteko hamaseigarrena

LAB sindikatuaren datuen arabera, Artean hildakoa Euskal Herrian, 2018an, lan istripuan hildako hamaseigarrena izan zan.



Arteako udaletxe aurrean batutakoak.

## BEDIA

# Yeuriren urbanizazioa 2018ko inbersino nagusia

### Erredakzioa

Martiaren 27an onartu ziran Bedia 2018ko aurrekontuak EAU-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzioagaz. Udalak 1.333.000 euro inguru kudeatuko ditu, igaz baino 25.000 euro gehiago.

Aurrekontuetako zatirik handiena, %31, inbersinoetarako izango da. Yeuiri auzunearen urbanizazioaren lehenengo faserako 320.800 euro dagoz. "Oinezkoai lehenetsuna emon gura deusegu, herriko beste leku batzuetan egin dan moduan. Horretarako, aparkaleku bat, espaloiak kendu eta dana maila berean ipini behar dogu, beste gauza batzuen artean. Proiektua eginda dago" azaldu deutso BEGITURI Aitor Sorriketa Bediako alkateak. Desjaubetzak,

Murtatzen egin beharreko lanak eta libre geratu dan diru partida batek osotuten dabe inbersinoetarako aurreikuspenak.

Igazko aurrekontuetan modifikazio bat egin zan ura Ereñora eroateko, 315.000 eurokoa, eta aurten egingo dala dinoe udaletik. Holan, biak batuta, 700.000 euro inguru aurreikusten dira inbersinoetan. Miloe eta hirurehun mila euroko aurrekontua daukan herri batentzat asko da.

### Udalkutxatik beste 10.000 euro

Bediak urtero Bizkaiko Foru Aldundiko Udalkutxarako dirua ipini behar izan badau be, aurten, udalkutxatik 10.000 euro jasoko dauz aurrekontuetan sartu barik dagozanak. Aldundiak zatika itzuliko deutso Bediari diru hori maiatzetik abendura.



Martiaren 27an egin zan aurrekontuetako plenoa.

## ARTEA



# Andran Gela zabaldu dabe Kultur Etxean

### Erredakzioa

Martiaren 23an, Arteako Andra Taldea talde feministak, Kultur Etxean dagoan Andran Gela izeneko espazioa aurkeztu eban. Aurkezpenera 38 andra hurre-

ratu ziran giro onean espazioa ezetu eta zertarako erabili gura daben adostuteko hausnarketea egiteko. Beti be, kontuan izanda Arteako andrentzako espazio feministea dala.

Idea nagusiak jaso ostean, bigarren batzarra apirilaren 20an 18:00etan egingo dabe. Espazio honek, herriko andrak talde feministan parte hartzera animetako be balioko dauala espero dabe Arteako Andra Taldekoak.

## ZEANURI

# Txistulariok badaragiogu liburuaren aurkezpena



### Erredakzioa

Zeanuriko Txistulari Taldearen 50. urteurrenoko ekitaldien artean, *Txistulariok badaragiogu* liburuaren aurkezpena eta argazki eta musika tresnen erakusketea egongo dira. Liburuaren aurkezpena apirilaren 13an izango da Zeanuriko Kultur Etxean, arrastiko 19:30ean. Bertan hizlari izango dira liburu egiteko beharretan ibili diranak: Martin Orbe, Jose Felix Zamakona, Jose Ramon Arbe, Aingeru Berguices, Kepa Perez Urraza eta Iñaki Irigoien, hain zuzen be.

Egun horretan bertan be emongo deusie hasikerea argazki eta musika tresnen erakusketari. Astebetean egongo dira ikusgai Zeanuriko udaletxe azpiko aretoan. Argazkiak txistulari taldearen ibilbidearen eta herri musikearen ingurukoak izango dira.

### Taldeak 50 urte

Aurten 50 urte beteko dira Zeanuriko Txistulari Taldea sortu zantetik eta ibilbide luze honek merezi dauzan moduko ospakizunak prestatuten dabiz taldekoak. Kantu egunagaz hasi eben bidea; oin, argitalpena dakarre; eta "akaberarako, ilusino handiagaz prestatutako kontzertuaz gozatzeko aukerea" egongo da bagilean.





## ARTEA

Hiru eguneko egitaraua  
prestatu dabe presoentzako  
dirua batzeako

## Erredakzioa

Arteko herritar batzuek TattooArtean izeneko ekimena prestatu dabe apirilaren 12tik 14ra. Espe-  
txeen gaineko jardunaldi honeetan,  
tatuajeak egiteko aukerea egongo  
da astegoienean zehar eta batu-  
tako dirua euskal presoentzat izan-  
go da. Euria egin ezkeru plazako  
ekintzak Kultur Etxean egingo dira.

Hilaren 9tik 14ra, Km 0. *Disper-  
tsioaren 11 aurpegi* erakusketea  
egongo da Kultur Etxean.

## Aprilak 12, eguena

19:00etan, aurkezpena eta jarraian  
zineforuma *Hemen right now* An-  
gela Davis eta espetxeen gaineko  
dokumentalaren egileakaz.

## Aprilak 13, barikua

11:00etatik 19:00etara, tatu-  
ajeak Mataderoan.

16:00etan, Buruz buruka dj-ak.

19:00etan, berbaldia *Eskubide  
zibil eta politikoak urratzeko tres-*

*na berriak: errepresio zuria* Eleak  
taldearen eskutik, Kultur Etxean.

20:30ean, *Bertsxortan* ikuskizuna  
Kultur Etxean. Bitartean talojana  
eta ostean akrobazia "antikartzel-  
larioak".

## Aprilak 14, zapatua

11:00etatik 19:00etara, tatu-  
ajeak Mataderoan.

11:30ean, umeentzako jolasak plazan.

11:00etatik 15:00etara, presoen  
kolektiboen azokea plazan.

12:00etan, *Aterabidetik* dispersi-  
noaren inguruko filma, Sare Gemika-  
Lumoko kideakaz Kultur Etxean.

13:30ean, Abereh kontzertua  
Mataderoan.

15:00etan, herri bazkaria plazan.  
Txartelak Arteko Herriko Bentan,  
Igorreko Herriko Tabernan, Di-  
mako Baltzola tabernan, Areatzan  
Bixerren eta Zeberion (10 euro).

17:30ean, Altsasuko gazteen aldeko  
konzentrazioa eta argazki erraldoia.

19:30ean, Martularen *La Briga-  
dista* clown ikuskizuna plazan.

22:00etan, kontzertuak plazan.  
HDH, Elortegi anayak eta AK dj.



## ARRATIA

Euskerea Arratiako lan munduan  
garatzeko eusGara proiektua abian da

Errota Fundazioak eta AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzeak, hitzarmena sinatu  
dabe eusGara proiektua martxan ipinteko. Proiektuaren helburua lan-munduan  
euskerea integretea da.

## Erredakzioa

Errota Fundazioaren helburua  
eskualdeko arlo desbardinaren ga-  
rapena da, eta arlo horreetan hiz-  
kuntzearen garapena integretea  
estrategikotzat jotzen dau. Funda-  
zinoko Iratxe Goikoetxearen esa-  
netan, "Arratian sektore pribadua  
da hizkuntzearen aldetik gehien  
eraldatu beharreko arloa. Bertan  
lan eta bizi dan biztanleria handia  
da eta gaitasun eta ezagutza datu  
horreek ez dira enpresetan isla-  
tzen". Hori aldatzeko, sinergiak ba-  
liatzea eta lankidetzeta bermatzea  
ezinbestekotzat jotzen dau. Baita,  
koordinazioa gauzatzeko gunea  
sortzea be. Eta horretarako jarri  
dabe abian eusGara proiektua.

## Euskerea lan mundua garatuteko

Egitasmoaren helburua epe lu-  
zera, enpresetan lan hizkuntzea



AHIZE-AEKko Mertxe Mujika eta Errotako Iratxe Goikoetxea.

euskerea izatea da, eta epe ertai-  
nera, Arratiako enpresetan Euske-  
ra Planak abiatzea. Errota Funda-  
zinoak bideratuko dau eusGara  
egitasmoa eskualdeko udalak,  
Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko

Jaurilaritzaren laguntzeagaz.

Proiektuan parte-hartzeako in-  
teresa daukien enpresak Errota  
Fundazioagaz ipini behar dira  
kontaktuan, [info@errota.eus](mailto:info@errota.eus) hel-  
bide elektronikora idatziz.

## ARTEA

Alberto Intxaurrea da EAJ-PNVtik  
2019ko Udal Hauteskundeetara  
aurkeztuko dan alkategaia

## Erredakzioa

Alberto Intxaurrea izango da  
EAJ-PNVk 2019ko Udal Hautes-  
kundeetan aurkeztuko dauan  
alkategaia, alkatetza berresku-  
ratzeko helburuagaz. Intxaurreak  
ezinbesteko jotzen dau Artearen  
alde etenbarik beharrean jar-

dungo dauan lantaldea osotutea.  
"EAJ-PNVk gure udala liderau  
gura dau indarragaz, batasunagaz  
eta ilusinoagaz" dino.

Intxaurrea zinegotzia da oin-  
go legegintzaldian, eta 1987 eta  
1991 bitartean be izan zan zine-  
gotzi. Arteako Uri Buru Batzarreko  
kidea be izan da hainbatetan.

## ARANTZAZU

## Arantzazu UEMako kide izango da

## Erredakzioa

Arantzazuko Udalak, UEMako  
kide izatea onartu eban martia-  
ren 13an udal osoko bilkuran eta  
maiatzaren 26an Diman egingo  
dan batzar nagusian onartuko  
dau eskaerea Udalerri Euskaldu-  
nen Mankomunitateak. Arantza-  
zuk 394 biztanle ditu eta %76 da  
euskalduna.

Udalerri euskalduna izan arren,  
euskerearen ezagutzeak eta  
erabilereak kezka sortu dabe  
udalean. Izan be, euskerearen  
ezagutzak be behera egin dau  
atzen ikerketa soziolinguistikoen  
arabera. 2011ko neurketan, %76  
zan euskalduna Arantzazun, bai-

na hamar puntu handiagoa zan  
1981ean (%86), eta egoerari  
bueltea emoteko egoki jo dau  
Udalak UEMAn sartzea.

Gaur egun 85 herrik osotuten  
dabe UEMA eta Arantzazu 86.a  
izango da.



## DIMA/ZEANURI

## Udalekuetan izena emoteko sasoia

## Erredakzioa

Martian izan zan Bediako Uda-  
lak eta Zaztaparrak Asti Taldeak  
antolatutako udalekuetan izena  
emoteko epea, eta oin apirlean,  
Dimako Udalak antolatutakoetan,  
apirilaren 9tik 23ra arte emon dai-  
teke izena. Gorbeia Aterpean  
udalekuak egin gura dituen alkar-  
teak barriz, maiatzaren 30era arte  
egin leikiez erreserbak.

Diman, Dimestenek antolatuta,  
Diman bertan goizez egingo diran  
udaleku irekietan; udaleku itxi-  
tan, hau da astea kanpoan pase-  
tako, eta Gazte Abenturan parte  
hartzeako aukerea egongo da.  
Udaleku irekiak garagarriaren 9tik  
13ra izango dira, 2005 eta 2014  
bitartean jaiotakoentzat. Udaleku  
itxiak edade bardinekoentzat, ga-  
ragarriaren 16tik 20ra izango dira.  
2000 eta 2005 bitartean jai-

takoentzat izango da Gazte Aben-  
tura, garagarriaren 23tik 27ra.

## Gorbeia Aterpean

Gorbeia Aterpean be 5 egune-  
tako udalekuak egiteko aukerea  
dago. Aterpeak, udarako edozein  
talde, alkarte, klub edo instituzi-  
nori bost egunetako udalekuen  
eskeintzea egiten deutse, 12 eta  
16 urte bitarteko gazteak Gor-  
beian egin dagiezan udalekuak.

Aterpekoak, guztira 9 talde  
eskeintza aurreikusi dabe, bagila-  
ren 25etik abuztuaren 31ra arte,  
asteleheneetik barikura. Taldeak  
gehienez 14 gazte osotuta eta  
gitxienez 10ek izan behar dira.

Gazteak, inguruko geologia eta  
biologia landuko dabe eta men-  
dizaletasunari lotutako teknikak,  
besteak beste. Horretarako, Men-  
di Ertaineko Kirol Teknikari biren  
gidaritza izango dabe.



## DIMA

# Arte Ederren Fakultadeagaz hitzarmena egin dau Dimak memoria historikoaren gaineko artelan bat egiteko

### Erredakzioa

Apirilaren 7an Bakearen Lore Gara memoria historikoa berreskuratzeko ekitaldia egingo dabe Diman bigarren. Bertan, Arte Ederren Fakultadeko hiru artista gaztek Dimako memoria historikoaren gaineko euren artelan proposamenak aurkeztuko dabe.

2015ean, Txumulueta alkatea memoria historikoa berreskuratzen hasi zan. Igaz, 80. urtemugan, Bakearen Lore Gara ekitaldi instituzionala egin eben. Baita hainbat dimoztarraren gerezaren gaineko testigantzak jasoten dauzan *Bakearen Lore Gara* dokumentala be, memoria galdu ez daiten.

Aurten be, herri mailan, memoria gordeko dauan esku-hartze bat egin gura dabe Udalak eta Txumulueta alkarteak. Horretarako hitzarmena sinatu dabe Arte Ederren Fakultadeagaz. Lan hori egiteko zazpi ikasle aurkeztu ziran eta hiru aukeratu ditue. "Aztertu genduzan euren hausnarke-


tak eta aukeratutako hiru horreek etorriko dira aurkezpena egiten. Gero gertatu daiteke hirurak ados ipintea aurkezpenak egiteko eta lan hori egiteko herrian" azaldu deutso BEGITUri Ibon Iza zinegotziak.

Zein artelan mota izango dan ez dakiela dino Izak. "Izan ahal da ibilbide bat, edo zeozer estankoa, edo bideo bat... Ez dogu gura artista konsagradu batek egindako monolito bat ipini. Herriaren parte hartzea gura dogu. Hori oso inportantea da guretzako". Artista gazteai aukerea emotea be gura izan dabela dino.

### Bonbardaketea gogoan

1937ko apirilaren 7an arrastiko 17:15ean Dima bonbardeau eben. Aurten 81 urte pasau diranean, ordu horretan, herriko eleiza eta ermita guztietako kanpaiak 5 minutu jotzen egongo dira.

Ekitaldia 18:30ean hasiko da Gazte Barri taldekoen jantzakaz eta bertso-saio txiki bategaz. Ondoren, Txumulueta alkarteko Manu Aurrekoetxeak hartuko



Kartela.

dau berbea, eta gero Dimako alkateak. Arte Ederren Fakultadeko hiru ikasleak Dimako memoriarako egin daben proiektua azalduko dabe ondoren. Igaz grabautako *Bakearen Lore Gara* bideoaren zati bat be proiektatuko da.

Amaitzeko, Zamakola abesbatzak kantu zaharrak eta doinu barriak eskeiniko ditu.

## IGORRE

# Adinarteko zineforuma oso positibotzat balorau dabe partaideak

### Erredakzioa

Arratia BHI Institutuak, Igorreko Jubiladuen alkarteak, Bizi Batzordeak eta Igorreko Udalak bultzatuta, martian, *¿A dónde vamos?* pelikulearen gaineko zineforuma egin eben edadeko personak eta gazteak alkarregaz. Saio bi izan ziran eta bigarrenan, Marian Gerrikabeitia pelikulearen zuzendaria be egon zan. Adinarteko zineforumean 45 personak hartu dabe parte, 26 gaztek eta 19 nagusik. Horreetatik 36 andrazkoak izan dira eta 9 gizonetakoak.

Antolatzaileen arabera, pelikuleak hausnarketa personala biztu eban. Gazteen artean, estereotipoak ahaztu eta begiak zabaltzeko balio izan dau; hau da, nagusiak sano aktiboak eta gizartearen parte dirala jabetzeko. Nagusiak bariz, identifikauta sentidu dira eta

euren mundua hobeto ulertzen lagundu deutse. Andra nagusien inguruko hausnarketarako tartea be euki eben eta zaintzaile rolak "eraldatu behar dirala" ikusi dabe.

Gazteak zein nagusiak gustura hartu dabela esperientzia hau dino Eider Aldape Marakakoak. Marakak, Bizi proiektuan parte hartzean daben personai proiektua garatzeko aholkularitza eta laguntza emoten deutse. Eta Marakak, Bizi Batzordean, jubiladuen alkatea eta institutuko ikasleakaz batera, saioaren dinamika diseinatu eta garatu eben.

Balorazioa ikusita, aurrera begira, leitekena da adinarteko beste ekintzen bat antolatutea. Ekintza honegaz 2017an hasi ziran alkarbizitza batzordetik. "Eta aurten be errepikatutea interesgarria iruditu jaku, igazkoa oso modu positiboan balorau ebelako".



Adinarteko zineforumean parte hartutakoak.

## ARRATIA

# Hezkuntzako grebak segmentu handia eskoletan, ez hainbestekoa Haurreskoletan

Martiaren 14 eta 15ean, egon zan eskola eta institutueta, gehiengo sindikalak (ELA, LAB eta Steilas) deituta.

### Erredakzioa

Arratia eta Zeberioko eskola publikoetan, lehenengo egunean

irakasleen %87k egin eben greba eta bigarren egunean %90k. Haurreskolen deialdiari jagokoenean, LABek akordio bat lortu eta gre-



Arteko eskolea.

ba deialdia eten egin eban eta beste sindikatuak barriz, ELAK eta Steilasek, mantenu egin eben deialdia. Hori dala eta, grebaren segmentua sano desbardina izan zan Haurreskoletan: Areatza, Artea, Dima, Zeanuri eta Zeberioko Haurreskoletan ez eben grebarik egin; Bedian, gitxieneko zerbitzuak egon ziran; Lemoan, irakasleen %12,5k egin eban greba, eta Igorreko Haurreskolan %70k.

Arratia eta Zeberioko eskoletan, segmentua ia erabatekoa izan zan egun bietan. Areatzan irakasleen %80k egin eban greba; Lemoan %87k; Zeanurin %87k lehenengo egunean eta %90k bigarren egunean; Artea %91ek eta Dima, Igorre eta Zeberioko eskoletan irakasle guztiak egin eben greba, eskoletako iturrien arabera.

Institutuan, grebaren segmentua handia izan aren, ez zan hainbestekoa izan. Lehenengo egunean irakasleen %53k egin eben greba eta bigarren egunean %70ek.

## LEMOA

# Errazakeria eta xenofobiaren kontrako logoa aurkeztu da

### Erredakzioa

Logoa, lehiaketa baten bidez aurkeztu dau Udalak. "Jatorri anitz, herri bat" da leloa eta lau haizetara zabalduko kolore askotako iparrorratza irudikatu dabe Maite Garcia eta Olatz

Elejabarrieta egileak. Hemetik aurrera, Lemoako Udalak logo hau erabiliko dau ekintza eta aldarmakapenetan.

Errazakeriaren kontrako konpromisoan beharrez jarraituko daua la adierazto dau Lemoako Udalak.





## UNDURRAGAKO URTEGIA

# Undurragako urtegiko obrak amaitu dira

2011n proiektatua, Undurragako urtegiko obra nagusiak 2017an amaitu ziran.

Hilabeteotan lehengoratzelanak be amaitutzat emon dabez. Atzen urteotan Bizkaian egin dan obra hidraulikorik handiena izan da.

**Alvaro Rabelli**

2014an, Uren Patzuergoak ekin eutsan Zeanurin dagoan Undurragako urtegiko lan erraldoia egiteari. 30 hilabete behar izan dira atzen urteotan Bizkaian egin dan obra hidraulikorik handiena egiteko. Hilabete horreetan guztietan

leherketak, lur mobimentuak eta kamioi astunen joan-etorriak eten bakoak izan dira. Oin, behin lanak amaituta, lasaitasuna bueltatu da Zeanuriko txoko honetara. Bertako auzokideak eta inguruan bizi diran hamaika animalia espeziek eskertuko dabe. Lan nagusiak, berez, 2017ko martirako amai-

**Guztira 909 zugatz,  
3.522 zuhaixka eta  
1.256 aldaxka landatu  
dira**

tuta egotea aurreikusten zan, harezkerok tresneria desmontetan, inguru txukuntzen, eta batez be, lehengoratzelanak egiten jardun dabe. Daborduko dana amaitu da.

Ekarri daigun akordura lanon helburua ia kilometro eta erdiko "by-passa" egitea izan dala Zadorraren sistematik datorren ura urtegian ez geldituteko. Horretarako, ezkerreko mendi-magalaran azpitik, ia Bilboko metroaren antzeko diametroko tunela zulatu behar izan da urtegiaren goiko aldetik presearen azpiraino. Bertan, Benta-Altako araztegiara doan ur-hornikuntzearen sistema orokorraz lotzean da. Era berean, ubide batek Arratia errekeari uraren zati bat itzultzen deutso. Urtegiaren goikaldean eregi dan hartze-sistemeak segunduko 5.000 litro ur xurgatzen ditu.

**Undurragako, gunekritikoa**

1973tik daukagu Undurragako urtegia. Hasieran Bizkaiko Labe Garaiak argindarraz hornitzea eukan funtzino. Baina, siderurgiaren gainbehera etorrira ur-hornikuntza orokorrerako bideratu zan. 1998. urteaz gero, osterabe argindarra ekoizten bueltatu zan. Horretarako, Undurragako urtegiak beti baliatu izan ditu Zadorraren sistemako urak, gaur Bilbo Handiko eguneroko kontsumoaren %75 dana; hau da, 300.000 litro ur egunero jasoten ditu bertatik. Urtegia, gainera, egin zan sasoiaren egin zan, ezelango oposizino barik, eta dagoan lekuan dago. Zeanuriko herrigunea presearen azpian dago, he-

rritik benetan hur, metro gitxira. Urteetan Zeanuriren zintzurrean egon dan labanea da, zeren, urio-la edo lur-bizi batek presea apurtu ezkerok, ondorioak ikaragarriak izango lirateke. Loakentzeakomodukoa da. Beraz, presearen segurtasuna, ur eta argindararen hornikuntzea eta inguruaren oreka ekologikoa ez dira beti ondo buztartu izan.

Horregaitik, atzen obra honetan hiru faktoreek kontuan hartu dira. Holan, segurtasuna handitu da, denporearen ajeak dituan preseari larregizko ur emariaren presinoa kenduz; ur eta argindararen hornikuntza egokia bermatu da; eta, atzenik, ingurunea lehengoratzearren berebiziko ahalegina egin da.

**Undurragako korridore ekologikoa**

Beharbada hilabeteotako lanik deigarriena urtegiaren ertzak lehengoratzeta izan da. Berau izan da obren atzen fasea, zenbait interbenzino ia obrak hasi bezain pronto egin ziran arren. Gogoratu daigun Undurragako urtegia, eta bere inguru osoa, besteak beste, bisoi europarraren habitata dala. Gune babestua da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Europako Batasunak arautua. Bisoi urtegiara doazan errekatxoetan bizi da, erreka ondoko basoa trinkoen dan guneetan. Noz edo noz, Arratia errekerabe jotendau, beti leku lasai eta ostenduenetara. Bada, izan diran obrak prestetako sasoiaren urtegiako ertz guztiak aurrez desbrozau ebezan, ehunka zugatz eta zuhaixka galdu ziran. Holan,



**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net




[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)









**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA



urtegiko eskoialdea, bisoiertzako korridore ekologikoa dana, sano kaltetuta suertau zan. Izan be, bisoiak landaretza trinkoa, erreka ondoko baso sarria, behar dau batetik bestera ibili ahal izateko. Landaretza desagertarazoteak, obren eragin zuzenak (lurren mobimentuak, zarateak, garraio astunak...) eta ingurunea lar humanizaua izateak egundoko arazoak ekarri behar izan deusaz desagertzeko arriskuan dagoan espezie honeri.

Hori dala eta, obren proiektuan hasikeratik egoan jasota urtegiko ertzetan egin beharreko lehengoratzeko ekologikoa. Lehengoratzelaren ardurea Bilboko Talaia enpresek euki dau, 2016an hasi eta oraintsu arte iraun dau. Hiru gunetan egin dira interbentzio nagusiak. Garrantzitsuena, esan lez, urtegiko eskoialdetik doan korridore ekologikoan egin da. Korridore hori Undurruga-Palomares auzoetan hasita, urtegi ertzeko

"zirga" bidearen paraleloa da; hau da, ur-ertzaren eta "zirga" bidearen artean doa, presaraino joan be. Bertan, behin espezie exotikoak kenduta, bertoko zugatz eta zuhaixkak birlandatu dabez. Haltzak (*alnus aglutinosa*), lezarrak (*fraxinus excelsior*), intsusak (*sambucus nigra*), hurrondoak (*corylus avellana*), astigarrak (*acer campestre*), sahatsak (*salix atrocinera*), zuhandorrek (*cornus sanguinea*), elorri baltzak (*prunus spinosa*), ereintzak (*laurus nobilis*), elorri zuriak (*crataegus monogyna*), baseramuak (*euonymus europeus*) eta gorostiak (*ilex aquifolium*) izan dira aukeratutako espezieak. Beste interbentzioak Undurruga auzotik hurren dagoan ezker aldeko ertzean eta presearen beraren eskolleran egin dira. Guztira 909 zugatz, 3.522 zuhaixka eta 1.256 aldaxka landatu dira. Horregaz guztiagaz bisoiarentzako habitat egokia bermatu gura da.

Urtegiaren goikaldean eregi dan hartze-sistemeak segunduko 5.000 litro ur xurgatzen ditu



Oribaiako Urri Iratzeak

# Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre



FUTBOLA

# Hamaika-hamabi urteko futbolarien txapelketa Arlonagusian

Lemoako Harrobi Futbol Klubak V. Alebin Futbol Txapelketa antolatu dau apirilaren 7rako.

**Erredakzioa**

Txapelketeak egun osoa hartuko dau; izan be, 10:30ean hasiko da eta 20:30ean izango da sari banaketa. Hamabi taldek eta 150 jokalaririk hartuko dabe parte.

Lemoako Harrobi Futbol Klubaz gainera, Athletic, Real, Alaves, Osasuna, Eibar, Antiguoko, Ermua blues, Sporting, Atletico de Madrid, Zaragoza eta Logroño neurtuko dira Arlonagusian.

Partiduak 17 minutu iraungo dabe. Sei taldeko molto bi egongo dira, liga moduan jokatuko da eta bigarren aukera emongo jakie bigarren eta hirugarren bati. Ondoren finalaurrekoa eta finala jokatuko dira.


Kimu mailan, 11 eta 12 urteko jokalariek jokatuten dabe. Maila honetan taldeak mistoak izan ahal diran arren; hau da neska-mutuek osotutakoak, talde mistorik ez dala etorriko dino Alex Maguregi antolatzaileak.

**Txapelketea eta kluba sendotuten**

Bosgarren aldia da Harrobi Futbol Klubak Lemoako Udalaren lagun-

tzegaz, Kimuen futbol txapelketea antolatzen dauana eta urtean-urtean txapelketea zein kluba sendotuz doazala dino Maguregik. Harrobi Futbol Klubak 12 talde

ditu. Nagusi, Gazte eta Kadete mailetan talde bana, Haur kategorian talde bi, Kimu mailan, 3 talde, Benjamin kategorian bat eta eskolan 3 talde.



BOLA JOKOA

# Arratiarrik ez Bola Txapelketa Komarkaleko lehenengo postuetan

**Maite Arrizabalaga**

Zornotzako San Miguel bolalekuan izan zan martiaren 24an Bola Txapelketa Komarkaleko atzen tiradea. Jose Luis Arregi, bertako taldeko kidea, izan zan irabazlea eta taldeka ostera, San Antoniok lortu eban lehenengo postua. Saillapen orokorrean be aurreneko postuan doa San Antonio taldea; bakarkakoan, San

Miguelko Beñat Gorospe.

Arratiako taldeen postuak honek dira: Elorriaga seigarren da saillapenean; Oba, zapigarren; Lemoa zortzigarren eta San Kristobal hamaikagarren. Bakarka lehen arratiarra, Lemoako Ibon Manzanedo da bosgarren postuan.

San Bartolome Zornotzako bolalekuan izango da hurrengo tiradea, apirilaren 7an. Aste santuko jai egunetan ez da tiradarik egingo.

XAKEA

# Udabarriko Xake Txapelketea Areatzan

**Erredakzioa**

Xake Bizi Areatza alkarteak bigarren urtez jarraian Udabarriko Txapelketea antolatu dau. Hamabostean behin, bikoteak egiteko sistema suitzarrera erabiliz jokatuko dabez partidak, eta jokalaririk bakotzak 35 minutuko denporea izango dau partida bakoteko, beti be partaideak ez badabe beste denpora tarte bat adosten.

Hamazortzi xakelarik hartuko

dabe parte kategorija bakar baten.

Txapelketearen helbura xakea kalera eta herrira hurreratzea da eta horretarako martian hasi eta bagilaren 24an amaituko dan leihaketea ipini dabe martxan. Sei partida jokatuko dau jokalaririk bakotzak. Irabazleak xake erloju bat izango dau sarizat eta azpitxapeldunak xake joko bat.

Igaz, Salva Lopezek irabazi eban Udabarriko Txapelketea.



**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - [olaetxeopriko@hotmail.es](mailto:olaetxeopriko@hotmail.es)

**ARKITEKTO TEKNIKOA**

- EIT - ITE (Erakinen Injeneria Teknikoa)
- EEZ - CEE (Eragingarritasun Energetikoaren Ziurtagiria)
- Segurtasun eta Osasun Planen erredazioa (PSS)
- Obren zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazioa

Almudena Simarro Armero  
664 763 741  
[arkitektura@almuartek.com](mailto:arkitektura@almuartek.com)  
ZEANURI  
[almuartek.com](http://almuartek.com)

**Avia guztiana**  
Laguntza psikologikoa  
Laguntza  
Fisioterapia  
Fisioterapeuta  
Laguntza erakutsi eta asar gehiago

**Kili-Kili**  
Antzara eta Puzteak  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**izkaifisios**  
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 55 08  
[igorre@izkaifisios.com](mailto:igorre@izkaifisios.com)  
ANDRA MARI KLINIKEA  
Fontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
[galdakao@izkaifisios.com](mailto:galdakao@izkaifisios.com)

**ZURE ZERBITZURA**

- Avia guztira 176 gasolindegik
- Avia Adenor 35 gasolindegik

ADENOR Igorre  
[www.aviaenergias.es](http://www.aviaenergias.es)

**GURE BIHOTZA**

- Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



## FUTBOLA

# Arratia bigarren da Euskal Liga amaituteko hiru partiduren faltan

### Erredakzioa

Andrazkoen Euskal Liga amaituteko hiru partidu baino ez diranean falta, Arratia bigarren dago sailkapenean 66 puntugaz, Bizkerre liderrarengandik 5 puntura. Atzen partidu biak irabazi ditu Arratiak. Martiaren 18an, Lakuaren kontra 0-2 irabazi eban, eta 25ean, Arizmendiren kontra 5-2. Datorren partidua, taulan 14. dagoan Derio taldearen kontra jokatu dabe apirilaren 14-15eko astegoienean.

Gizonezkoen lehenengo taldea, Lurraldeko Ohorezko Mailan dagoana, Gatika liderrarengandik 4 puntura dago eta laugarren da sailkapenean. Atzen partidu biak irabazi egin ditu: 1-0 Erandioren kontra eta 0-1 Zallarren kontra. Datorren partidua, apirilaren 7-8ko astegoienean jokatu dau Urbietan, Etxebariren kontra.

### Arratia B

Andrazkoen Arratia B taldeak ira-


bazi egin eban atzen partidua Peña Athletic Sestaotarraren kontra 1-3, eta hurrengo partidua Indautxuren kontra jokatu dau Urbietan. Gizonezkoen bigarren taldeak be 6-0 irabazi eban bere atzenengo partidua Fruizen kontra eta Cultural Bren kontra jokatu dau hurrengo, etxetik kanpo. Partidu biak hilaren 7-8ko astegoienean jokatu dira.

### LemoaHarrobi

Lurraldeko Bigarren Mailako 2. taldean dagoz Arratia B eta LemoaHarrobi. 24 jardunaldi jokatu, LemoaHarrobi sailkapenean 3. postuan dago 50 puntugaz, eta Arratia B seigarren da, 40 puntugaz. Lemoako taldeak atzen partidu biak irabazi ditu. Martiaren 17an, 4-1 irabazi eban Ibarsusiren kontra, eta 24an, 5-1 Iraultzaren kontra. Hurrengo partidua Betolatzaren kontra jokatu dau hilaren 7-8ko astegoienean.

## MENDIA

# Julen Larruzea eta Amagoia Legarra irabazle IV. Kolazinoko Mendi Lasterketan



### Erredakzioa

Kolazinoko Mendi Eguna aurten Euskal Mendizale Federazioaren Rankinean parte hartu dauan Bediako Mendi Lasterketan, bigarren egin eban Onditz Iturbe igorretarrak. BTT lasterketea Julen Zubero lemoaztarrak irabazi eban eta Bediako Aitor Artarazek, Junior eta Kadete mailako mendi lasterketea.

Egunari 150 martxalari inguruk emon eutsien hasikerea 20 kilometroko ibilbidea eginaz. Antolatzaileen arabera, 500 persona inguru alkartu ziran Bedian martiaren 24an mendiaz gozatzeko asmoagaz.

### BTT lasterketea

Lehiaketea, BTT lasterketeagaz hasi zan. 35 kilometroko ibilbidea egin eben txirindulariak 1.300 metroko desnibelagaz. Lehia estua izan zan, batez be hiru txirindularien artean. Julen Zubero lemoaztarrak lasterketako faborito nagusia eta erritmo bizia inponiduten saiatu zan hasikeratik. Jose Diez Arriola kantabriarrak eta Alex Ordeñana usansoloztarrak, igazko garaileak, eutsi eutsien erritmoari. Kilometroak pasata, Ordeñanak amore emon behar izan eban, eta Zubero eta Arriolaren arteko lehia gogorra izan zan. Atzenean, Lemoakoak irabazi eban. Julen Zubero, parte hartu dauan hiru edizinoetan irabazi egin dau proba.

Andrazkoetan, partaidetzea urria izan zan, partaide bi baino ez. Dana dala, txirindulariak burruka gogorra egin eben irabazteko. Zuriñe Frutos izan zan azkarrena, Enara Oronozen aurretik. Frutos, proba hau bizikleta zein lasterketa modalidadeetan irabazi dauan kirolari bakarra da.

### Mendi lasterketak

Aurten proba nagusia, Euskal Mendizale Federazioaren Rankingaren parte izan da eta kalidade handiko korrikalariak hartu dabe parte, "inozko partaidetzarik onena" izan dau, antolatzaileen esanetan. Espero legez, urtekera arina izan zan, Julen Larruzeak erritmo gogorra ezarri ebalako Santiagozarreko igoeran. Asier Larruzeak eta Walter Becerrak jarraitu eutsien baina amore emon behar izan eben, Larruzeak lidergoa helmugaraino sendo eroan eban eta. Asier Larruzeak lortu eban bigarren postua eta Beñat Katarainek hirugarrena.

Andrazkoetan, Amagoia Legarra izan zan indartsuena eta Onditz Iturbe igorretarrak bigarren egin eban.

Junior/Kadete lasterketan "azpimarratu behar da herriko lasterkarien papera". Bediako Aitor Artarazek irabazi eban eta Xabier Asua hirugarren sailkatu zan. Bien tartean Pello Gerrikaetxebarria sartu zan.



apirilak 21 larunbata

# Zatoz gu ezagutzera!

Lorategi handi, ertain eta txikiak daude. Zeurea edonolakoa izanda ere, STIHL en onena eskaintzen dizugu ezin hobeto egon dadin.

Etorri eta aurkitu gure udaberriko produktu eta eskaintzarik onenak!

\*Datu komertzialak emateari baldintzatutakooparia. Dohaineko esperientziak, 2x1 eta familiarako esperientzia sortak. Ikusi promozioa baldintzak [www.dia.stihl.es](http://www.dia.stihl.es) webgunera

OPARI SEGURUA\* Izango duzu



# GARAJE FELIPE

Montorra z/g  
Amorebieta (Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 630 90 39  
[garajefelipe@euskalnet.net](mailto:garajefelipe@euskalnet.net)

[garajefelipe.stihl-tienda.es](http://garajefelipe.stihl-tienda.es)



## ZINEKLUBA

## Negar egiten dauan ganbelu albino baten istorioa Igorren

## Erredakzioa

ren Davaa eta Luigi Falomirenak dira.

Aprilaren 12an, Igorreko Zineklubak *Die Geschichte vom Weindenken Kamel (La historia del camello que llora)* pelikulea eskeiniko dau 20:00etan. 2003 urteko Mongolia eta Alemaniaren arteko koproduzino honek hainbat sari jaso ditu eta dokumental luze onenari zientapena jaso eban 2004ko Oscar sarietan. Zuzendaritza eta gidioia, Byambasu-

## Sinopsia

Udabarrian, Gobiko basarmotuko (Mongolia) artzain familia nomada baten ganbeluak jaiotzen dira. Ganbeluetako batek erditze zaila izan dau, baina familiaren laguntzeagaz, atzerean, ganbelu kume albino bat jaiotzen da. Danak ahalegindu arren, amak jaiotzen ez duen dau, eta ez deustoen ematen.

## LEHIAKETEAK

## Arratia Institutuko Izaro Izquierdo ikasleak Airakurri Lehiaketean irabazi dau

## Erredakzioa

Izaro Izquierdok Jasone Osororen *Greta* liburuaren gainean egindako iruzkin literarioa aukeratu dau Euskal Editoreen Elkarteak (EEE) irabazteko, Euskal Herri osoko ia 250 iruzkinen artean. Sari moduan liburu sorta bat eta tableta jaso eban Izquierdok. Institutuari be beste liburu sorta bat oparitu eutsan EEEK. Sari banaketea martiaren 26an izan zan eta saria ematen Jasone Osoro idazlea eta editoreen alkarteko Itziar Osa egon ziran, Institutuko zuzendari, irakasle eta Izaro Izquierdoren ikaskideak batera.

Editore profesionalak, Elkar, Erein, Ibaizabal, Pamiela eta Txalapartako editoreak hain zuzen, ia 250 iruzkin jaso eta aztertu ondoren, hiru finalista aukeratu ebezan: Arratia BHIko Izaro Izquierdo, Ander Deuna ikastolako June Marañon eta Arizmendi ikastolako Beñat Iñurrategi. Atzenean epaimahaiak aho batez Izaro Izquierdoren iruzkina aukeratu eban irabazteko moduan.

## Euskal literaturearen etorkizuna

Airakurri proiektuaren hirugarren edizioa izan da aurtengoa. DBHko 2. mailako ikasleak dago zuzenduta eta proiektuaren helburua gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea da eta euskeraz irakurten jarraituten animetea. Arratia Institututik iruzkin asko jaso ebezala azpimarratu eban Itziar Osa editoreen alkartekoak. "Askok, iruzkin bi be bialdu dabez".

Sara Iturbe irakaslearen arabera, maila honetako ikasleak, kursoan zehar hamar bat liburu irakurten dabez gitxienez.



Izaro Izquierdo eta Sara Iturbe.

## MUSIKEA

Larregi taldeak *Animalia basatiak* bideoa kaleratu dau

## Erredakzioa

Lemoako Larregi taldearen *Animalia basatiak* kantu barria

udagoienean argitaratu dauan disko barriaren aurrerapena da. Izan be, taldeak 10 urte beteko ditu aurten eta lan barri batez ospatu gura dabe urtemuga.

Abestiaren grabaketea eta ekoizpena Larregik eta Endika Parrak egin dabe. Bideoaren ekoizpena barriz, Recrum Media & Dando al Rec-en eskutik egin dabe.

## Larregi

Larregi taldea Lemoan sortu zan 2008ko abenduan. 2010ean, le-

## IKASTAROA

## Virginia Imazen ikastaroa Lemoan

## Erredakzioa

Andrazkoak eta umorea gai hartzean dauan ikastaroa emongo dau Virginia Imazek Lemoan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan. Ez da Imaz Arratiara datorren lehenengo aldia. Izan be, Jabekuntza Eskolako ekitaldietan egon da behin baino gehiagotan bere *clownklusio*nak ateraten, eta aurreko ikasturtean be andrazkoak eta umorearen gaineko ikastaroa emon eban arrakasta handiz.

Tailer honetan, emozino biologiko eta kulturalen gaineko hausnarketea egingo da. "Guretzako gunea eta denporea izango da.

Alkar entzun eta behin eta barriro esaten deuskuezan guzur kulturak desaktibetako gunea, sentiduten doguna egokia dalako" dinoe Jabekuntza Eskolatik.

Ikastaroak hiru saio izango ditu, apirilaren 5, 19 eta 26an, 18:30etik

20:30era Lemoako jubilatuen tabernaren gaineko gelan.

## Emakunde Saria

Virginia Imazek 2017ko Berdintasunerako Emakunde Saria jaso eban igaz. Holan, epaimahaiak arte eszenikoen bidez bardintasunaren aldeko sensibilizazioan 30 urtez egindako beharra sari-tu eban. Imaz aktorea, pailazoa, ahozko kontalaria, *clownklusio*-nista, gidoilaria, eszenalekuko zuzendaria eta helduen etenbako hezkuntzako irakaslea izan da. Baita 30 urteko ibilbide profesionala daukan Oihulari Klown antzerki konpainiako zuzendari artistikoa eta sortzailea be.



## KANPAINEA

## Igorrek Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainan parte hartuko dau

## Erredakzioa

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina maiatzaren 31ra arte luzatuko da. Egitasmoak herritarrek euskerazko liburuak irakurten animau gura ditu, liburutegi publikoen erabilera sustatuz. Liburuak alkarreri oparitzea edo trukitzea be proposatzen dau, jentearen arteko hartu-emonak landuteko. Aurten 45 herrik hartuko dabe parte, tartean Igorrek.

Izenak berak adierazoten dauan moduan, hiru pausu ditu ekimenak. Lehenengotik liburutegiko liburu bat irakurri behar da; gero, fitxa bete eta azkenik, fitxa betetakoan jasotako bonoagaz baten bateri liburu bat oparitu. Bono horrek liburuak %35 merkeago

erosteko aukerea emoten dau.

Horrezaz gainera, april eta maiatzaren amaieran, liburutegian, 30 euroko balioa dauan txeki baten zozketea egingo da, hil horretan irakurle fitxa bete da-

benen artean. Txeki horrek, euskerazko liburuak erosteko aukerea emongo dau. Erosketa-txeki liburu dendan erabilteko epea bagilaren 15era artekoa izango da.

## Kanpaineak eragin positiboa

Euskaltzaleen Topagunearen arabera, aurreko edizioetan frogatu egin da kanpaineak eragin positiboa izaten daua herritarrek herriko liburutegian egiten daben euskerazko liburu maila maila kopuruan. Eta liburu salmentan izaten dauan eragina be kontuan hartzeakoa dala dinoe.



kerea eta memoriaren inguruko kantuak sortu eta joz. *Harro bizi*

*euskeraz eta Memorian gordeak* dira horren lekuko.





## KONTZERTUA



Radiocrimen taldea.

# Radiocrimen punk taldeak kontzertua emongo dau Areatzako Gaztetxean

### Erredakzinoa

Radiocrimen punk taldeak, *3er grado* (2016) bere atzen diskoko kantak eskeiniko ditu aurreko diskoetako kantuakaz batera Areatzan. Hiru disko ditu kalean bandeak, *Matame* (2013) eta *Antecedentes* (2014) dira aurreko biak. Hitzordua, apirilaren 14an da, 22:00etan, Laminetxe Gaztetxean.

Indar eta amorruz betetako kontzertua aurreikusten da eta taldearen kantu ezagunenak entzuteko aukerea egongo da; *Tiempos salvajes*, *Todo el que manda* edo *Los chicos ya no quieren llorar* izan daitezke horreetako batzuk.

Unai Santacoloma musikari bi-

llaroztarra 2016an hasi zan bandan. Gitarrea jotzen dau. Taldeko beste partaideak, Txarly "Usher" (abotsa), Luis Alberto Netxes "Punk" (gitarrea eta abotsa), Iñaki Gardoki "Gato" (bajua) eta Gontzal Perez "Niño" (bateria) dira.

### Areatzan zale asko

Igazko Areatzako jaietan, kontzertu arrakastatsua jo eban Radiocrimenek. "Giroa ederra izan zan eta lagun barriak egin genduzan" dinoe taldekoak. Apirilaren 14ko kontzerturako sarrera guztiak salduta egon dira ia hilabete lehenago. Kontzertuan, munduko garagardo molto bat eta Radiocrimen taldearen CDa, kamiseteta eta biniloa zozketatuko dira.

## LEHIAKETE

# Zu bai Zu Lehiaketako kanporaketak hastear

### Erredakzinoa

Casting-ak amaitu ostean, kanporaketak, apirilaren 7, 14 eta 25ean, eta maiatzaren 5, 19 eta 26an izango dira. Finala bagilaren 10ean.

Aurten be Ismael Pereira "Isma" izango da aurkezle lanetan. Castinga 43 ikuskizunek pasatu dabe. Ikuskizunok publiko aurrean ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Areatoan egongo diran kanporaketetan.

Maila asko igon da; izan be, "Euskal Herri mailan ipinten dozunean jente asko apuntetan da eta nibela be igon egiten da". Profesional zein amateurak eta Tele 5eko Got Talent programatik pasautakoak be hartuko dabe parte lehiaketan. Urtailan egin ziran castingak eta Zu bai Zu sortu eta antolatuten dabenak egon ziran epaimahaian.

Berrogeta hiru horreetatik 8-9 bakarrik dira Arratiakoak. "Oso gitxi. Lehiaketak profesionaltasuna irabazi dau, baina Arratiako jentea apur bat ostonduta geratu da". Horreek ikusgarri ipinteko, Arratiako lan onenarentzako 300 euroko saria dago.

### Kaleko artistentzako aukerea

Parte hartuko daben artista batzuk profesionalak dirala dino Ismak, eta beste batzuk kamara aurrean eta eszenaleku handietan egon dirala, Got Talent-en parte hartutakoak lege. Baina gehiena, jente amateura da, kalean lan egiten dauana. "Hori

da atalik handiena, ze kalean talentu pilo bat dago. Zu bai Zuk izan gura dau horreentzako plataforma antzeko zerbaist", euren espektakulua eta talentua publiko aurrean erakusteko aukerea eskeiniz.

Lasarte Areatoa beteten dabenak bakarrik ez, beste jente askok be ikusiko dau streaming-en bitartez erretransmitiduko da eta. Finala ikusteko "seguruunik" pantaila handi bat ipiniko dabe kanpoan eta beste aurkezle bat egongo da kanpoko jentea animetan.

Gala bakotxean 10 edo 11 ikuskizun artistiko eskeiniko dira gitxi gorabehera ordu biko saioetan, 20:00etan hasita. Amaituteko orduan, Ismaren beraren showak be izango dau eragina. Izan be, aurreko edizinoan egin eban moduan, publikoak eta epaimahaikoak eskatutako imitazioak egin eta erronkak hartuko ditu.

### Jente ospetsua epaimahaian

Nobedade moduan, kanporaketetako epaimahaian, jente famadua egongo da. Hiru epaimahaikide fijo izango dira eta laugarrena aldatuten joango dala eta jente ezaguna izango dala adierazoz deuto BECIRURI Ismael Pereira aurkezle eta antolakuntzakoak. El Conquis-eko Maddi Lertxundi be izango da epaimahaian.

Zu bai Zu Talentu Lehiaketaren helburua espektakulua bera da

eta horren arabera balorauko ditu epaimahaikak lehiakideen lanak. Aurtengoa bigarren edizinoa da, lehenengoa sano arrakastatsua izan zan eta epaimahaikideak harrituta geratu ziran Arratian dagoan talentua ikusita. Lehenengo edizino haretan, Patikaok, Jorge eta Deieneren jantza eskolakoak, irabazi eban nagusien kategorian. Gazte kategorian, Jone Muñecas eta June Iruarizagak eroan eban saria telakaz egindako akrobaziakaitik eta umeen kategorian irabazlea, Magali Fernandez izan zan.

### Sariak

Bigarren edizino honetan, diru gehiago dago sarietarako. Holan, Nagusiak kategoriako irabazleak 1.500 euroko saria jasoko dau. 12 eta 18 urte bitarteko Gazteak kategoriakoak 500 euroko saria izango dau eta 11 urte arteko umeentzat 200 euroko saria egongo da. Arratiako lan onenak 300 euroko saria jasoko dau. Guztira 2.500 euro.

Aurten sarrerak ez dira takillan salduko Teleka sistemearen bidez egongo dira salgai, Kutxabank-eko kutxazainetan zein internet-en bidez.



## DUNBA

# Etxeko lanak egitea danon ardurea da

### Dimako Ugarana ikastetxea

Gure eguneroko praktikaz hausnartu eta hori aztertzeko gakoak emon eta lantzeako baliagarria gertatu jaku aurtengo martiaren 8a. Baliagarria proposamen eta aukera praktikakoak eregiten lagundu deuskulako.

Egun gizartean nagusi diran hezkuntza-ereduak era kritikoan errebisau behar doguzala esaten jaku. Gure jarkera horreek izaten dira-eta sarritan bitzita eta bizikidetzatza onuragarriko oztopo, esaterako etxeko lanen inguruan kontrabaliokoak nagusi arazoz egunerokoan: etxeko beharrak andran beharrak, lehia, dominazioa edo mendekotasuna, genero rolak, desbardintasunak eta

diskriminazioak eta abar. Horren guztiaren ondorio dira etxeko lanen inguruan dogun jarkerea, bardintasun eza, alkartasunik eza, itxikeria...

Eskolako ume bakotzak, etxeko zereginetan egin doguna taula batera ekarri dogu, bakotxaren aportazioa bisualizatu eta geure erantzukizunaz berba eta eztabaidatzeko ostean.

Personen arteko hartu-emon onak eta gatazkak sormenez eraldatzea bultzatuko daben jarduerak eregi eta jarrera positiboak garatutea dogu helburu. Gainera, ikuspegia zabaldu eta, ulermen handiagoz, proposamen sortzaileak, barritzaileak eta praktikan oinarritutakoak aztertu ezker, persona guztiak erantzuz-

kizun, errespetu, alkartasun eta gure ondoan dagoenagazko joko leialean oinarritutako bizimodura, jarkeretara hurreratuteko.

Hezkuntza-eremuan ikaslearen gaitasunen eta trebetasunen garapenerako esparru pribilejiadua da familia eta bere kideen inguruan gure etxeetako lan banaketearen inguruan gertatzen danaz jabetutea edo bakotxaren funtzio edo betebeharez erantzukizunaz jokatutea.

Hori kontuan hartuta planteau

genduan etxeko lanen ekimena martxan ipintea, alde batetik komunitateko partaide bakotzak egunerokoan gertatuten danaz oinarri teoriko eta praktikokoak jasoteko eta, bestetik, komunitateaganazko erantzukizunaz jokatuten ikasi eta trebatzeko.

Zeintzuk dira guzti honetan lagundu deikeguezan jarkerak?

1- Jarkera positibo bat eukitea etxeko lanakazko eta lan horreen egileakazko.

2- Kide bakotxarentzako, ahal-



men eta nahiak kontuan hartuz, zereginak adostu.

3- Eguneroko bultzatu ohitura baikorrak.

4- Lagundu antolatzen eta planifiketan.

5- Lan horreekazko erantzukizuna eta autonomia sustatu.

6- Lankidetzatza giroa bultzatu.

7- Lanak ondo egiten saiatzen garala ziurtatu.

8- Eginbehar natural modura garatu txiki txikitatik eginbeharrok.

9- Giro egokia bideratuta eta zereginok balore bezala hartu.

10- Motibetako moduak topatu.

11- Ahaleginak eta lorpenak preziatu eta indartu.

12- Eginbeharren inguruan komunikazio familiarra landu eta jagon.



## AGENDEA

APRILAK 3  
AREATZA

Hilaren 8ra arte, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, paisaje naturalai buruzko erakusketea. Sergio Gonzalez Ahedonen argazkiak. Parketxean.

## DIMA

Apirilaren 5era arte, *Yoga, Eskulanak, Pilates, Txi-kung, Entrenamentu funtzionala, Gimnasia hipopresiboa* eta *Zunba* udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

Maiatzaren 4ra arte, Dimako jaietako kartelerako irudi lehiaketak.

## IGORRE

*Zirkua, Ariketa hipopresiboa, Yoga, Irakurketa tailerra, Txi-kung* eta *Jantza afrikarrak*, udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

Hilaren 13ra arte, *Mendirik Mendi* argazki erakusketea Kultur Etxean.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutuen duan Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina maiatzaren 31ra arte.

## LEMOA

Hilaren 11ra arte, Bigarren eskuko azokarako izena emoteko epea Udako Kultura Zerbitzuan.

Apirilaren 22ra arte, bialdu daitezke lanak Lemoako VII. Narrazio Lehiaketara. Udaletxe edo [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) helbidera.

## UBIDE

Hilaren 16ra arte, Herriko Taberna ustiatzeko proposamenak aurkeztu daitezke eta 30era arte, Udak daukan etxebizitza alokairuan hartzeako eskaria egin. Udaletxean. Baldintza pleguak Udalaren webgunean.

## ZEANURI

Hilaren 8ra arte, Gorbeia jubiladuen alkarteak antolatutako Bilborako txangoan izena emoteko epea.

Gorbeia Aterpean udalekuak egin gura dituen alkarteak maiatzaren 30era arte egin lekiez erreserbak.

APRILAK 4  
ZEANURI

18:30ean, Gorbeia jubiladuen alkartearen ez

ohiko batzara.

APRILAK 5  
LEMOA

18:30ean, Arratiako Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, Virginia Imazen *Humor y mujeres* ikastaroa hasiko da.

APRILAK 6  
IGORRE

20:00etan, *Valtonyc & la represi3n cultural* berbaldia eta rap kontzertuak, Valtonyc eta Hermanos Bastardos-en eskutik. Kiñu Gaztetxean.



## Oh my God! taldearen Zer duzu Amy? antzezlanaren Areatzan

Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldiaren hirugarren saioa izango da apirilaren 14an. Oingo honetan, Oh my God! taldeak sortutako *Zer duzu Amy?* Poltsiko Antzerkia Sorkuntzako bigarren edizinoko saria lortu eban lana eskeiniko dau. Udaletxeko Areatzan izango da arrastiko 20:00etan.

Aktore lanetan, Leire Ucha antzezlanaren egilea izango da. Leire Uchak telebista saio eta antzezlan askotan parte hartu izan dau.

## Sinopsia

Dasyk edozein gauza egingo leuke Amy Winehusen abotsa eta talentua izateko. Baina bere abotsa arrunta da, eta bere itxurea eta bizitza be, arruntak dira. Amyren heriotzearen barri izandakoan, mailetea hartu eta Londonera abiatu da, Edgwareburyko kanposantura. "Ez da posible abots hori betirako isilik egotea. Zerbaist egin behar dot" pentsatuta, mailetea zabaldu eta bertatik esoterismo liburua, atxurra eta palea atera ditu. Amyren abots-kordak bereganatuteko.

## UBIDE

09:00etatik 11:00etara, Gizarte Langilea egongo da.

APRILAK 7  
DIMA

17:15ean, 1937ko apirilaren 7ko bombardaketea gogora arazoteko, eleiza eta ermitetako kanpaikadak; 18:30ean, Bakearen Lore Gara ekitaldia eskolako aretoan.

## IGORRE

20:00etan, Zu bai Zu Talentu Lehiaketako kanporaketa gala Lasarte Areatzan.

## LEMOA

09:00etatik 14:00etara, *Natura* argazki tailerra Udak antolatuta. Aurreko eguna izena emoteko azken eguna saio honetarako.

10:30ean, Harrobi Futbol Klubak antolatuta, V. Harrobi Txapelketea. Kimuak Arlonagusian.

APRILAK 9  
DIMA

Dimstenek eta Udak antolatutako udalekuetan eta Gazte abenturan parte hartzeako izena emoteko epea apirilaren 23ra arte.

## LEMOA

19:00etan, Udak antolatuta, *Landare aromatikoen laborantza* ikastaroa hasiko da. Elizondoko Kultur Gunean.

APRILAK 10  
IGORRE

Jubiladuen alkarteak antolatutako Costa Bravara urtekerarako izena emoteko atzen eguna.

APRILAK 11  
LEMOA

19:00etan, Udak antolatuta, Argazkigintza ikastaroa: *Gorputza eta generoa* ikastaroa hasiko da Elizondoko Kultur Gunean.

APRILAK 12  
ARTEA

14ra arte, TattooArtean. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

## IGORRE

19:30ean, Igorren Ebatzi alkarteak antolatuta *Elkarrekin together* dokumentalaren proiektzioa Kultur Etxean.

20:00etan, zinekluba. *Die Geschichte vom Weindenken Kamel (La historia del camello que llora)* Lasarte Areatzan.

## ZEANURI

09:45ean, urtekerea. Gorbeia jubiladuen alkartearen txangoa Bilbora. 11:00etan, Euskal Museora eta Riberako merkatura bisitza; 14:30ean, bazkaria (10 euro).

APRILAK 13  
IGORRE

Jubiladuen antolatuta, hilaren 19ra arte, Costa Bravara txangoa.

16:00etan, Arratiako Gurutze Gorriak antolatutako *Lehen sorospen eta DEA* ikastaroa.

## LEMOA

19:30ean, Arratia kantuz Axteta plazan. Kantu Bat Gara Arratiako musika taldeak lagunduta.

## ZEANURI

18:00etan, Zeanuriko txistulari taldearen ibilbidea,

herri musika eta musika tresnen erakusketeari hasikerea emotea. Erakusketea apirilaren 20ra arte udaletxe azpiko aretoan. (Ordutegia. Zapatuan, hilak 14, 19:00-20:30; domekan, hilak 15, 12:00-14:00; hilaren 16tik 19ra: 19:00-20:30; barikuan, hilak 20, 18:00-20:30).

19:30ean, *Txistulariok badaragiogu* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean. Hizlariak: Martin Orbe, Joxe Felix Zamakona, Joxe Ramon Arbe, Aingeru Berquices, Kepa Perez Urzua eta Iñaki Irigoien.

APRILAK 14  
AREATZA

08:00etan, eleizaurrean. Lamino Kirol Klubak antolatuta, zeharkaldia Bikotxgane-Garaigorta-Aizbelaga-Arrugaeta-Untzuetara (770 m.)-Arakaldo.

22:00etan, Radiocrimen taldearen kontzertua Laminetxe Gaztetxean.

## IGORRE

20:00etan, Zu bai Zu Talentu Lehiaketako kanporaketa gala Lasarte Areatzan.

## LEMOA

09:00etatik 14:00etara, *Natura* argazki tailerra Udak antolatuta. Aurreko eguna izena emoteko azken eguna saio honetarako.

Ganzabalek antolatuta, urtekerea sagardotegira. Elurretze-Arrixulegi. Erroilbide (832 m.).

APRILAK 15  
DIMA

11:00etan, Igitie Azokea.

13:00etan, Alkarregaz Gure Esku Dagok antolatutako ekitaldia. Giza katearen aurkezpena.

## IGORRE

17:00etan, zinea *Oin handiaren semea*; 19:30ean, *Errementari*. Lasarte Areatzan.

## LEMOA

11:30ean, Bigarren eskuko azokea Elizondon.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldearen urtekerea. Porracolina.

APRILAK 16  
IGORRE

10:00etatik 14:00etara, orientazio saioa Beharbidetara. Kultur Etxean.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garajeon aparkautakoa eta atoi bolegaz. Telefonoa 688 602 516.

## AUTOA SALGAI

Nissan Terrano II 2.7. Motorra egoera onean, remolkearentzako bolegaz, 3 ate eta 232.000 kilometro. 1999 urtekoa. Telefonoa 628 041 526.

## BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

DANERIK  
LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

## ETXEA ALOKAIUAN

Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz eta gasagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

## JATETXEA ALOKAIUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimentu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Errementari* filmarako.

Amaia Espinosa (Artea)  
Ziortza Etxebarria (Zeanuri)



2 Areatzako Gaztetxeak emondako sarrera bi Radiocrimen taldearen kontzerturako.

Inma Valiente (Lemoa)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Pazientzia. 2.- Iridioa. Zuria dala, baltza da. 3.- Letra bat. Edadea.
- 4.- Otoitz bukaeran. Azken letrea.
- 5.- Mantso, otzan. Zoro.
- 6.- Konsonantea. Lehor.
- 7.- Betekada. Bokala. 8.- Jakingarri. Erbioa. 9.- Atari, portale.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Birritan, gurgur. Botagura.
- 2.- Emea ez dana. Galdera aurretik. Errusiako mendebaleko ibaia.
- 3.- Konsonantea. Lo gagozala egiten dogu. 4.- Helburu. Seinale.
- 5.- Edadeko. Letra bat. 6.- Birritan, durundiaren onomatopeia.
- Errutenioa. Ezetza. 7.- Zeregin, egiteko. Baita.



Topau andrazkoen zazpi futbol ekiporen izenak.

E	Z	K	A	R	A	K	O	L	A
S	T	O	N	E	S	I	T	E	B
T	U	N	K	I	M	A	P	A	R
E	D	I	A	B	E	M	R	T	O
P	A	M	E	V	A	C	A	E	Z
I	A	K	R	U	E	G	A	N	K
N	Z	E	I	L	O	L	D	E	U
A	O	B	O	D	A	O	T	R	T
D	G	N	A	R	K	A	O	I	X
O	A	M	A	D	R	I	D	F	O
L	R	U	T	A	L	O	P	E	F
A	A	A	T	H	L	E	T	I	C
R	Z	F	A	U	S	T	I	M	A
E	C	O	L	M	A	R	U	S	B
S	U	Z	K	E	P	A	R	I	Z

# AKI MI KO

Kailoren



umaan moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA**  
**GATY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TUF. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 / 609 200 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992





## ZIGOR FOLLA HERNANDO

## "Dibersidadeak lan antolaketan lagunduten dau, beste ikuspuntu bat eskeintzen dau alako"

Zigor Folla erdi arratiarra dan santutxuztarra da. Lantegi Batuak, urritasun bat daukien personai lan aukera egokiak sortzean deusezan enpresan egiten dau behar Lan Teknikari beharretan. Bere lana, lanpostu bat beteteko behar diran ezaugarriak definidu eta horretarako personea topau, lana ikasten lagundu eta segmentua egitea da.

Areatzakoak ondo ezetuten dauz urritasun bat daukien personak enpresa arruntetan behar egiteko daukiezan zailtasunak. Izan be, bost bat urte eukazanean izandako gaixotasun baten ondorioz, eskoiko femurraren zati bat kendu behar izan eutsien eta hankan ortesia dauka.

Rakel Aldekoa Diez

### Ze gaixotasunaren ondorioz gertatu jatzun hori?

Bost urte nebazala, sei urte oin-dino bete barik, femurrean osteomielitia deitzean dan gaixotasuna euki neban eta femur zati bat kendu behar izan eusten. Hainbat urte geroago, hanka bat laburrago geratu jatan. Bost urte egon nintzan ibili barik, ohetik altxau barik. Ondoren, ibiltan ikasi behar izan neban. Hanka bat laburrago geratu jata eta ortesi bat eroan behar dot horren ondorioz.

### Zelan daroazu?

Normaltasunez. Askotan jentek muletakaz ikusten nau eta pentsetan dau laguntzea behar dodala. Baina 10 urtegez ikasi neban holan ibiltan eta nire izateko modu normala eta ibilteko modu normala hori da. Holan ibiltan naz eta holangoa naz.

### Dibersidade funtzionala daukien personen aurrean, gizartearen ikuspuntua aldatu egin da? Integrazinoa lehen baino errezagoa da ala oindino persona horreek eskubidedun herritar moduan tratetik urrun gagoz?

Desgaitasun fisiko eta sensorialen aurrean asko aldatu da gizartea. Sasoi baten oso ikuspuntu paternalisteagaz jokatuten eban jentek. Zorionez, lan eta gizar-te arloan, integrazinoa gero eta handiagoa da. Irisgarritasuna be hobetu da, aurrerakuntzak egon dira, duda barik. Baina desgaitasun batzuetan, intelektualean batez be, paternalismo handia dago. Eta arazo mentalen kasuan bildur asko dagoz, mito asko, eta hor, gizar-te mailan, aurrerapausu gehiago egin behar dira. Jentek pentsetan dau zeozelango arrisku bat daukala gaixotasuna dauka-

nak.

### Lantegi Batuak zein da zure lana?

Lantegi Batuak desgaitasunen bat daukien personai beharra emoteko sortutako enpresa bat da, batez be desgaitasun intelektuala daukien bideratutakoa. Helburua, persona horreek lan munduan integretea da. 3.000 lagun inguru gagoz Bizkaian. Bizkaian bakarrik egiten dogu lan. Nire departamentuan zortzi persona gagoz eta 100 persona baino gehiagori egiten deusegan segmentua hainbat enpresatan.

Guk jenteari enpresa arruntetan topau behar deusegan lana. Ni lan teknikaria naz. Nire lana da behin aukera bat topatuta, azterketa bat egitea ebazteko lanpostu hori beteteko ze ezaugarri izan behar dauzan personeak. Eta perfil horretako persona bat aukeratzen dogu.

Nire beharra aurretik hasten da, azterketa hori egiten, eta gero langile horri lan hori aurrera errotan erakusten deusegan. Hasi keran modu intensiboan, gero lanaren errutinea hartzean dauanean, bakarrik ixten dogu, baina beti egiten deusegan jarraipena.

### Eta zergaitik enpresa arruntetan?

Begiratu behar dana da desgaitasuna daukien personak zergaitik ez dagozan enpresa arruntetan. Ni neure komunitatean ez naz bizi desgaitasun fisiko daukien personen artean; bakarra naz. Zorionez gaur egun Hezkuntza mailan integrazinoa dago, umeak eskola arruntetan ikasten dabe eta ez eskola berezietan. Zergaitik lan munduan ez da bardin gertatzen? Desgaitasun bat sufriduten daben persona guztiak gizar-te normalizauan bizi behar dira, ez bereiz-tuan. Horregaitik normalena izango litzateke enpresa arruntetan lan egitea. Oin arte batzuek uste izan dabe ez garala gai enpresa arrunt baten lan egiteko eta ez deuskue ezta aukerarik emon be. Askotan, pensino asistentziala bilatzen jakie, baina zergaitik ezin dogu lan bat euki? Hori beharrezkoa da soldata bat eukiteko, eta autonomia eta integrazinoa lortzeako.

### Legeak lagunduten dabe?

Legeak esaten dabena da inte-

grazinoa bermatu behar dala, baina hori oso orokorra da. Desgaitasuna daukien personen integrazinoa soziala bermatzeko legeak ezartzen dau 50 langile baino gehiagoko enpresetan, beharginen %2 desgaitasun bat daukien izan behar dirala. Baina hori oso zabala da eta erakundeak ez dabe hori bermatzeko erremintarik ipinten. Legea egon badago baina... Administrazioak ez dau legea bermatzeko medio nahikorik ipinten, ez da nahikoa jarraipenik egiten eta batzuetan legea ez beteteko aukerea emoten dau, berbarako.

### Zer da enplegu sostengua eta zergaitik horren beharra?

Guk azpimarratzen doguna da persona guztiak daukiela lanerako gaitasuna. Hezkuntzan gertatzen dan moduan izan beharko litzateke. Edonork ikasi leike eskolan eta behar dituan laguntzak eskeiniko deusegan. Lanean be bardin gertatu beharko litzateke. Gaur egun personea adaptetan da beharrera eta ez alderantziz. Holan ezinezkoa da hainbat persona lan arruntan munduan integretea.

### Ze eragin euki ahal dau enpresetan eta jentearengan holango programa baten parte izateak?

Parte hartzean daben personengan eragina normalizazinoa da.

Alde batetik, soldata bat irabazten dabe, beste langileen baldintzetan, eta horrek suposatzen dau autonomia maila bat, heldutasun maila batera heltzea. Eta beste alde batetik, normalizazinoa bat bere erlazinoetan, bere inguruan dagozan personak ez dira lagunak, lan-kideak dira, eta horrek heldutasun maila bat eukitea dakar. Dibersidadeak lan antolaketan laguntzen dau, beste ikuspuntu bat eskeini. Batzuetan egiten dogu lana modu baten, beti egin dogulako holan eta moldatu behar garanean kon-turaturten gara danontzako logikoa-go eta errezagoa dala eta danontzako aplikau geinkela lan egiteko modu hori. Aukerea egon behar da lana beste ikuspuntu edo beste modu baten egiteko.

### Zer eskatzen deusegan gizar-teari dibersidade funtzional-dun personak integretako?

Alde batetik desgaitasuna daukien personai esango neuskie ausartu behar dirala euren eskubideak erreklametan, eta gure eskubideetako bat dala aukeratu ahal izatea ea enpresa arrunt baten egin gura dogun lan. Bestetik, enpresai hainbat mito eta bildur alde batera ixteko eskatuko neuskie, eta administrazioari baliabide gitxiegi ipinten dituala eta ez daukala legea beteten ezta bete arazoten be.



# www.begitu.org

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

